

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	MONDRAGON ASSEMBLY KOOP.E
2. Sektorea:	Industria
3. Langile kopurua:	32 emakume/109 gizonezko
4. Webgunea:	https://www.mondragon-assembly.com/eu/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Mondragon Assembly nazioarteko talde bat da, automatizazio eta muntaketa soluzioak garatzen espezializatua. Espainiako enpresa nagusia, kooperatiba bat dena, 1977an sortu zen, eta ekoizpen eta muntaketa teknologien automatizazioaren arloan aitzindarietako bat bihurtu zen.</p> <p>Hiru jarduera eremutan banatzen gara: eguzki energia; E-mugikortasuna eta energia biltegitzea; eta automatizazioa. Eremu horietako bakoitzean garatzen ditugun jarduera nagusien barruan daude giltza eskurako makinak eta lerroen garapena eta kontratupeko fabrikazioa; horri esker munduko edozein lekutan eskaini ditzakegu soluzioak, gure sei ekoizpen lantegien eta hiru bulego tekniko eta komertzialen bitartez.</p> <p>Automatizazioarekiko dugun grina da talde gisa batzen gaituena. Mondragon Assemblyn, ahalik eta etekin gehien ateratzen diogu proiektu bakoitzari, automatizazioa baita gure izateko arrazoia da. Garatzen ditugun proiektu guztietan, gure esperientzia guztia bezero bakoitzaren zerbitzura jartzen dugu. Bestela esanda, gure potentzial guztia baliatzen dugu bezero bakoitzarentzat soluziorik onenak eta berritzaileenak eskaini ahal izateko.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Izaro Aretxaga
Helbide elektronikoa:	i.aretxaga@mondragon-assembly.com
Telefonoa:	(+34) 943 71 20 80

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	BARNE BILERETAN EUSKARAZ IZATEKO PROZESUA
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Mondragon Assembly kooperatibako Euskara Planaren misioak dio MA euskaraz normaltasunez biziko den enpresa izango dela. Hori horrela, lan-hizkuntzari garrantzi handia ematen zaio Euskara Plana aurrera ateratzerakoan. Lan-bileretan jarri da begirada, enpresa honetan taldean lana egiteko ohitura handia baitago, bai zuzeneko langileen artean, eta zeresanik ez zeharkakoen artean.</p> <p>Mondragon Assemblyn euskaraz hitz egiteko gaitasuna du langileen %94ak, eta bertako euskararen erabilera informala %64a da. Beraz, erabilera hori areagotzeko, lan bilerak euskalduntzea estrategikoa dela ondorioztatu zen.</p> <p>Lan-bileren zerrenda bat egin, bertako kideen gaitasunak eta ohiturak identifikatu eta bakoitza dagoen lekutik hobekuntza plan bat egitean datza proiektuak. Zerrenda bi zutabeetan banatzen da: batetik, euskaraz gehiago harremantzeko gaitasuna duten bilerak daude, eta, bestetik, euskara hutsez lan egin dezaketenak.</p> <p>Behin bilera zerrenda eginda, bertako kideei gonbidapena luzatu zaie erronkak hartzera, eta gehienek halaxe egin dute, batzuk euskara hutsez egitera pasa dira, eta beste batzuk hobekuntzak zehaztu dituzte eta horretarako ekintza planak gauzatu.</p> <p>Bilera guztietan ekipoko arduraduna ez den kide batek hartu du ardura euskara zaintzeko, edo eusle izateko. Bilera horietako kideekin hausnarketa saioak egin dira, bertan hizkuntza ohiturei buruz, zailtasunei buruz, eta abar hausnartu dute kide hauek eta euren bileretan erabiltzeko baliabideak zerrendatu dituzte.</p> <p>Urtero, bilera hauek balorazioa egin eta hurrengo urterako erronka berriak zehazten dituzte, beti ere, misioa lortzeko asmoarekin.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

1. BILERA GUZTIEI EGINDAKO GALDEKETAREN EMAITZAK

BILERAK	KIDE KOPURUA	ERANTZUN KOPURUA	EHUNEKOA	BAI	EZ
JARRAIPEN BILERA. SAT EGUZKIA	5	2	%40	2	0
KIRO JARRAIPEN BILERAK. OPERATIBA	10	6	%60	5	1
Ltz KOORDINAZIO BILERA	8	3	%37,5	3	0
KIRO JARRAIPEN LANAK. KOMITE BILERA	4	4	%100	4	0
SEGURTASUNA ETA OSASUN KOMITEA	7	4	%57,14	4	0
EGUZKI INGENIARITZAKO LANEN KOORD.	5	2	%40	2	0
MAKINA BEREZIA ELEKTRIKOA ESTANDARRA. TALDE BILERA	4	4	%100	2	2
EGUZKIA. JARRAIPENA BILERA.MEKANIKOAK	6	3	%50	3	0
ELIKADURA JARRAIPENA	5	2	%40	2	0
PERTSONAL SAILEKO ETA SISTEMA INTEGRATUETAKO TALDE BILERA	5	2	%40	2	0
ESTANDARIZAZIO KOORDINAZIO TALDE BILERA OROKORRA	3	1	%33,33	1	0
ESTANDARIZAZIO KOORDINAZIO BILERA ELEKTRIKOA	3	1	%33,33	1	0
KONTSEILU SOZIALA	6	1	%16,66	1	0
TALDERIK GABE	2	2		2	0
GUZTIRA	73	37	%50,68	34	3

2. BILERA BATZUK HARTUTAKO KONPROMISOEN ADIBIDEAK

BILERA	JARRAIPENA NORK	KONPROMISOAK 2022
Kontseilu Errektorea	Eider Lozano	50%
Kontseilu Soziala	Soraya	90%
Kiroko Jarrapen bilerak - Operatiba	Mikel Ruiz de Azua	90%
Kiroko Jarrapen bilerak - Muntatzaileak	Eneko Larrañaga	100%
Kiroko Jarrapen bilerak - Despatxuak Etxarri	Mikel Ruiz de Azua	90%
Informatikako koordinazioa	Leire Zubia	50%
Ltzko koordinazio bilera	Asier Ostolaza	90%
Eguzkiko koordinazio bilera	Mikel Lasa	80%
Proiektuen egoera	Haitz Alzola	95%

3. HAUSNARKETARAKO AURKEZPENA



FUNTZIOAK-ROLAK

Zer egin dezakegu euskararen erabilera areagotzeko?



EKIPOA → PERTSONA < HARREMANAK < TALDEA

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
 GESTIÓN AVANZADA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLITICA LINGÜISTICA

4. HAUSNARKETA ARIKETAREN ONDORIOAK

HASIERA batean pentsatutako aldaketa	Bileraren ezaugarri esanguratsuak	Egindako (edo egin gabeko) aldaketa saiakera .	Zaila iruditu zaidana	Erraza iruditu zaidana	Aurrera begira, egiteko, errazago egiteko, hobeto egiteko edo hobeto sentitzeko, zer eskertuko nuke?
Gure saileko talde bilerak euskara hutsez egiten ditugu. Dena den, lehenengo saioaren ondoren beste pertsona batzuekin bilerak izan ditut eta tartean euskara ulermen maila altua duten pertsonak baina gaztelaniaz hitz egiten dutenekin, kasu hauetan euskaraz egin dut nik bilera eta partaideek euskaraz eta gaztelaniaz. Lehenengo saio honek kontzientzia hartzeko lagundu dit, taldean ez, bakarkako konbertsazioak ditudalako batzuekin eta horietan pertsonak gaztelaniaz hitz egiten badu	Bilera euskara hutsean denean ok, denok euskaraz hitz egiten dugunean. Bileran euskara ez ezik, gaztelaniaz hitz egiten duen norbait badago, kasu horretan arreta gehiago eskatzen du.... Pendiente egotea ea besteak ulertzen duen edo ez... gustura dagoen, zailtasunen bat duen edo ez... bilera efektiboa izateko denok modu batean edo bestean ondo konektatuta izateko.	Nire zailtasuna harremana dudan pertsona batzuk gaztelaniaz hitz egiten dutela eta kasu horietan gaztelaniara jotzen dudala, beraz, hauekin euskaraz egiteko ohitura hartzea.	Talde batean bi hizkuntza nahasten direnean, euskara eta gaztelania... kontzientzi edo arreta handiagorekin egotea eskatzen du, sintonia sortzea garrantzitsua da, beraz agian indar gehiago jarri behar....	Egoeran kontzientzia hartzea, zer dagoen gure esku... eta gure esku dagoen horretan zer egin dezakegun, alderdi akotatik, hizkuntza aldetik... eta emozio aldetik nola sentitzen garen.	Nik uste dut kontzientzia hartu behar dugula egoerarena, zer dagoen gure esku eta zer ez dagoen gure kasu, gure baitan dagoena egin horrek eragiten dituen alderdi guztietan.... Behin ohitura bihurtzen denean modu automatiko eta natural moduan aterako da; autentizidadez jokatu dugu egoera hauetan. Momentu honetan ez da horrela, bidean goaz.... 🐼🐼